

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

2016ko zergak ordaintzeko borondatezko epea

Jesús Berganza González Erriberagoitiko Udaleko alkate lehendakariak:

JAKINARAZTEN DU: zerga hauen 2016ko ordainagiriak kobratzeko moduan daudela:

- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.
- Landa ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- Hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- Ezaugarri berezietako ondasunen gaineko zerga.

Borondatezko epea 2016ko urriaren 10etik abenduaren 9ra izango da.

Borondatezko epea bukatutakoan, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio abenduaren 10etik aurrera, eta ordaindu ez diren kuotak ehuneko 20ko errekarguarekin kobratuko dira, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 28. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Halaber, zergadunei gogorarazten zaie banketxe edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal izango dutela ordainketa, udal bulegoetan hala eskatuta.

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek, zerga aurreko urteetako banku kontuan helbideratuta izaten jarraitzen badute, ez dute inolako izapiderik egin behar, udala arduratuko baita ordainketa izapidetzeaz.

Banku helbideratzeen altak edo aldaketak eta gerora jakinarazpenak egiteko helbide aldaketak Erriberagoitiko Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Pobes, 2016ko irailaren 26a

Alkatea

JESÚS BERGANZA GONZÁLEZ